

EMAKUMEOK, GURE ESKUBIDEAK DIRELAKO, MARTXAN!!!

Orain urtebete, Euskal Herrian bizi garen Emakumeen Eskubideen Gutuna egiteko konpromisoa adierazi genuen jendaurrean. Eta horretan gabiltza.

Martxoaren 8 honetan, emakume guztien esku jarriko dugu guk eginiko lana, gutun hori denon artean osa dezagun. Bizi dugun errealitatea nola ikusten dugun adierazi behar dugu diagnostiko horretan. Eta esku artean ditugun erronkak asko badira ere, Martxoaren 8 honetan lehentasun batzuk nabarmendu nahi ditugu:

1.- Gogorkeria sexista, tratu txarrak, bortxaketak, emakumeak erailtzea eta bestelako ekintza mesprezagarriak atzean uzteko, gizarte osoak egin behar du lan; izan ere, hemen ez da inor erantzule egiten. Gaur egunean, gizonek ez dute onartzen eurak izaten direla erasotzaileak, bortxatzaileak, hiltzaileak; “ni ez naiz izan” esatera mugatzen dira, beste askorik gabe.

Erakundeek adierazpen asko egiten dituzte, eta hartu beharreko neurriez aritzen dira; baina gero, berdintasun politikak, ekintza positiborakoak, berdintasun planak, eta abar, eta abar, aurrekontuetan azkenak doaz ilaran. Badago diru publikoa zertan gastatu, eta ez emakumeen eskubideak defendatzen, hain zuzen ere. Ez dago borondaterik, ez dago benetako egitasmorik, aurrekontudunak, ez zaie jarraipenik eta ebaluaziorik egiten, eta, batez ere, ez dute EMAITZA POSITIBORIK emakumeotzat.

2.- Zainketak baloratzea nahi dugu. Euskal Herrian emakumeak biztanleriaren erdia baino zertxobait gehiago gara, bizitzak jarrai dezan egin beharreko lanen eta zainketen %80 egiten ditugu, eta lan hori ez dago, ez gizarte mailan, ez ekonomikoki, aitortuta. Beraz, pertsona guztiek zainduak izateko duten eskubidea aldarrikatu nahi dugu. Emakumeek aukeratzeko eskubidea dute, AUKERATU ESAN DUGU, zaindu nahi dugun ala ez; eta ez dadila betebeharrak bat bihurtu, nahiz eta ordaindutakoa izan. Bestalde, gaur egungo beharrezko erantzungo dien sistema publiko eta unibertsala nahi dugu.

3.- Gizartearen hainbat esparrutan dagokigun lekua patriarkatuak eta sistema kapitalistak ukatu egiten digu, eta orain berreskuratu egin behar dugu leku hori. Gutxiengoa gara erabakitze esparruetan eta botere arloan, ez gaude behar bezala ordezkaturik ekonomia eta politika aldetik balioa duten eremuetan, iraupen luzeko langabetu multzo handiena osatzen dugu, soldata kaxkarrenak ditugu, baldintza txarreko kontratuak egiten dizkigute eta gizarte-laguntzak jaso behar izaten ditugu. Eta beste emakume batzuen egoera okerragoa da oraindik: etxeko andreak, etorkinak eta prostitutak; hauek ez dituzte gainerako langileek dituzten eskubideak ere, eta, gainera, gizartearen zati handi baten iritzirako, patriarkatuaren gaitz-aztarna osatzen dute. Txirotasuna emakumezkoak dago.

Horregatik guztiagatik, emakume guztiei dei egiten diegu: heterosexualei, lesbianeiei, transexualei, hemen jaio edo handik etorritakoei, eskubideak dituzten edo ez dituzten langileei. Elkar gaitezen eta egin dezagun Gutuna denok batera. Beste mundu bat posible dela pentsatzen dugulako, askatasunean, berdintasunean, elkartasunean, bakean eta emakumeenganako justizian oinarritutako mundu bat, eta hori lortzeko, indarra eta matxinada beharrezko direlako... GORA EMAKUMEON BORROKA!!!